


Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Kenyan jirafak lasai zeuden baina herritarrak haserre

Kenyak iazko abenduaren 27ko hauteskundeen ondoren kaosean murgildua dirudi. Poliziaren eskuetan, bi hautagai nagusien jarraitzaileen arteko liskarretan edo tribuen arteko mendekuetan, mila herritar baino gehiago hil dira. Nola iritsi da horretara Afrikako paradisuatzat saltzen zena?



ZER GERTATZEN DA KENYAN? Film, erreportaje eta dokumentaletatik saltzen zuen aurpegia –safariak, natura aberats eta salbaia, masaiak bezalako giza talde ikusgarriak...– errealitatea asko apaindurik lortzen zela ezaguna zen. Baina Kenyatik azken hilabeteotan iritsi direnak bezalako irudiak helduko zirenik ez zuen inork esperoko, ez eta justu orain urtebete Nairobira Munduko Gizarte Forora joan eta hango auzo txiroetako mixeria ikusi zutenek ere.

Iritsi ziren, ordea, abenduaren 27ko hauteskundeak, bermerik gabeko hauteskundeok irabazitzat eman zituen Mwai Kibaki, oposizioko Orange Democratic Movement-eko (ODM) Raila Odingak ez zituen onartu emaitzak, liskarrak hasi ziren, poliziaren jazarpena ere bai, oposizioko parlamentari bat hil zuten... eta herrialde osoa sutu zen. Kenyako gertakizun lazgarriak, oraindik baretu ez direnak, esplikatzeke aipatu izan dira tribuen arteko ezinikusiak, sentimenduok manipulatzat dituzten politikarien kalkuluzinakoak, agintarien ustelkeria... Beste batzuk Britainia Handiak bere inperialismoarekin utzitako herentziaz oroitu dira asteotan.

John Lonsdalek ondo ezagutzen du Kenya. Cambridgeko Trinity College-n irakasle emeritua den honek beste artikulua askoz gain bi liburu dauzka argitaratuak honetaz: *Unhappy Valley: conflict in Kenya and Africa* (Zorigaiztoko Hara-

na: gatazka Kenyan eta Afrikan) eta *Mau-Mau and Nationhood* (Mau-Mau eta naziotasuna). *Open Democracy* aldizkari elektronikokoan berrikitan plazaratu du “Kenya: ethnicity, tribe and state” artikulua, beste gune aurrerakoi gehiagotan gero erreferentziatu dena. Historiak ez du esplikatzen gaur gertatzen dena, baina gaurkoa ezin ulertu da historiaren argirik gabe.

Lonsdalek gaur Kenya den estatua- ren sorreraraino atzeratu du begirada. Herrialde honetan XIX. mendean ez zen estatutik. Herritar gehienak nekazaritzan edo abeltzaintzan ari ziren, ehizetik eta bilketatik bizi ziren gutxiengoak ahaztu gabe. Lonsdalen hitzetan, orduko Kenyan tribuak baino gehiago familia eta leinuak zeuden, eta aginte zentralik ere ez zegoen. Britainiarrek inportatu zuten bertara Estatu XIX. mende bukaeran, eta beren aldean oso ahulak ziren lider afrikarrak berenganatu zituzten.

Estatu kolonialak pixkanaka aberastunaren araberrako piramidean antolatatu zituen herritarrak, lehen mosaiko anitzean era dispartsoan antolatuta zeudenak. Bi polo indartu ziren, bata “zuria” eta bestea “beltza” eta periferia marjinalizatu asko eragin.

Kolono zuriek berenganatu zituzten XX. mendean barrena Kenyako lur emankorrenen %20. Baina horietako zergekin Inperioa asetzen ez zutenez, gainerako %80an afrikarren neka-

zaritza sustatzen hasi ziren britainiar- rrek, kenyarren %20 diren kikuyu jendearen eskualdean, Nairobi ondoan. Afrikarrak kristautzera etorritako misiolarienezako ere eskualde hori zen erakargarriena, eta bertan kokatu ziren eskola gehienak. Kikuyuak lehenago hasi ziren modernotzen gainerako herritarrak baino.

Gainerako etnietakoak ere hasi ziren beren leku bila. Batzuetan misiolari- eriek berek eman zieten halako tribu- nazio kontzientzia, Biblia zaharraren irakurketa lokalekin. Txirotasunetik ihesi, ekonomia berriaren bazter auzo- etara jo zuten lan bila: trenbideetan, lurjabe zurien murrontzan edo soroe- tan, polizian, armadan, ganadu tra- tuan. Ugazabak eta agintariak etnien artean mesfidantza ereiten saiatu ziren.

Mau-Mau gerrilla beldurgarri hura

Kikuyu jendeak –gaur ere kenyarren ia laurdena– giro horretan hartu zuen etnia izatearen kontzientzia. 1945etik aurrera Rift haraneko goialdeetan baserri handietako ugazabak soroak mekanizatzen hasi zirenean, urte batzuk lehenago bertara eramandako langile kikuyuei bizibaldintza okerragoak ezarri zizkieten. Hauek saiatu ziren beren sorlekuetan berriro nekazaritzan hasten, baina ez zuten lortu, eta Nairobi inguruko txabolategietara jo behar izan zuten, nola edo hala bizimodua ateratzera.



Irudikoa "Rapunye herriko emakumea" dela dio argazia Interneten jarri duen Alessandra del Tufok. Itxuraren arabera, emakumeak masai etniakoa izan behar du, turisten kameren aurrerako apainduta ageri da. Kenya aipatzean argazki horietara geunden ohituta, eta mundua harritu da abendutik zabaldu diren liskarren bortitza ikusirik. Afrikako irudi idiliko horiek eta safariak erakarrita, turisten diru sarrerak dira Kenyak dauzkan garrantzikoenetakoak. Baina *National Geographic*eko dekoratuen atzean herri oso txiroa bizi da. Barne Produktu Gordinaren arabera Kenya munduko herrialdeetan 76.a baldin bada, diru hori biztanleen artean banatuta (*per capita* errenta) munduko azkenetakoa da: 156. Pertsona eta urteko 1.200 dolar besterik ez. Nazioarteko Diru Funtzak eta Munduko Bankuak hala eskatuta, ekonomiaren liberalizazio eta pribatizazio betean murgilduta dago Kenya azken urteotan.

Kikuyu txiroon egoerak zerikusi gutxi zeukan ordurako lurjabe kontserbadoreagoak bihurtuak ziren beste kikuyu batzuenarekin. Hauen artekoa zen Jomo Kenyatta, beranduago independentziaren ondorengo Kenya kudeatuko zuena, eta deserrotutako txiro haiek aldiz, kopuru handitan egin zuten borroka Mau-Mau gerrillaren lerroetan britainiarren kontra.

Mau-Mau gerrillak aipamen bat merezi du, behin eta berriro azaltzen da-eta Kenyako bizitzan. 1952 eta 1960 artean gerrilla hau borrokatu zen ingelesen kontra, eta garai hartan Europa osoak izan zuen bere berri, britainiarren desinformazioaren galbahetik pasata noski. Desmasia guztiak, kanibalismoa barne, egozten zitzaizkion Mau-Mau famatuak urte horietan

600 militar ingeles edo beltz hil zituen. Aldiz, hauek 10.500 gerrillari hil zituzten, 30.000 zauritu eta beste 100.000 susmagarri preso hartu kontzentrazio eremuetan. Zibilen artean, 1.800 afrikarren heriotza dago dokumentatuta, baina beste 50.000 gehiago hil zirela uste da.

Kenyako ekintzaileen kontra trebatu zen Frank Kitson militar gaztea –oraindik bizi da–, gero jeneral bihurtuta Ipar Irlandan IRAren kontrako kontraintsurgentzia antolatuta zuena, eta Espainian batzuek ezaguna dutena. Kenyako estatu independentea ere Mau-Mau zanpatuz sortu zen, eta urte luzez gerrilla honen historia tabu izan da bertan. Bizi diren gerrillari beteranoen izenean ari diren abokatuak sustatuta, asteotako batean izatekoa da Londre-

sen gobernu britainiarren kontrako epaiketa, Kenyan egindako txikizioen kalte-ordainak eskatzeko.

Lonsdaleren analisisira itzulita, independentziaz geroztik Estatuak bihurtu zaie kenyarrei gizarte mailetan gora egiteko bide ia bakar. Jomo Kenyatta presidentearekin estreina eta hura hildakoan Daniel Arap Moi, herritarren ezinegona baretzeko lurrak banatzen aritu ziren, horretan ere etniekin jokatuz, izan masaiei lagunduz edo kikuyei edo kalenjji-iei. Presidentetara Daniel Arap Moi iritsi zenerako zer banatua asko zegoen urrituta. Populazioa asko handitzen ari zen, eta aldiz lehorteak gertatu ziren, eta gero eta lur txarragoak zeuden banatzeko.

2002an Mwai Kibaki iritsi zenerako, maniobratzeko tarte estuagoa zeukan. Jakina denez, 2007ko abenduko hauteskundeak bermerik gabe egin izanak eta horien emaitza ilunak lehertu ditu harresiak. Kenyan duela mende erdiko borroka giro krudela berpiztu da, nagusiki kikuyu eta kalenjji jendeen artean, baina etnia gehiagoren artean ere bai.

John Lonsdale ez da ausartu etorkizuna iragartzera. Alde batetik etnien arteko haserreak urrutiegi joan dira, eta bestetol Estatuak ez du bere buruaren erreforman asmatzen. Eta "bere burua eraldatzeko adinako tresnarik ez daukan Estatuak, irauteko adinakorik ere ez dauka". Edozein erakunderentzako balio duen epaia. Kenyako espejismoa zen: hemendik aurrera safariak kario pagatuko dira. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Z E R B I T Z U A

Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,
pertsionalizatua,
hurbila eta
etengabea.
Horixe
da gure
konpromisoa.

ZINKUNEGI
OPTIKA

Herrani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL - 943 426 624